

LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

Klima-aldaketari buruz (Zuzenketak aurkezteko epea)
(09/09.01.00.0012)

Aipaturiko lege-proiektua dela-eta, ez da agerrialdi-eskerik izan; horrenbestez, Erregelamenduko 134.1 artikuluari jarraituz, 15 eguneko epea zabaldu behar da proiektuari zuzenketak aurkezteko.

Eusko Legebiltzarra, 2011ko ekainaren 29a

Batzordeko lehendakaria, Javier Carro Iglesias

De cambio climático (Plazo de presentación de enmiendas)
(09/09.01.00.0012)

No habiéndose solicitado comparencias en relación con el proyecto de ley de referencia, procede, con arreglo al artículo 134.1 del Reglamento, la apertura de un plazo de 15 días para la presentación de enmiendas a dicho proyecto.

Parlamento Vasco, 29 de junio de 2011

El presidente de la comisión, Javier Carro Iglesias

ERREGELAMENDUA ETA EBAZPEN OROKORRAK REGLAMENTO Y RESOLUCIONES GENERALES

Legebiltzarraren Erregelamendua aldatzea (Osoko Bilkuraren erabakia)
(09/09.03.01.0002)

2011ko ekainaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran hartu zen erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila Erregelamenduaren aldaketa.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia**

NIK, JESÚS LOZA AGUIRREK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Eusko Legebiltzarrak, 2011ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren aldaketa onetsi du, idazki honekin batera doakizun testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2011ko ekainaren 30ean.

Mahaiko lehen idazkaria, Jesús Loza Aguirre. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Arantza Quiroga Cia

Modificación del Reglamento de la Cámara
(Acuerdo del Pleno)
(09/09.03.01.0002)

En ejecución del acuerdo adoptado por el pleno ordinario celebrado el día 30 de junio de 2011, se ordena la publicación de la modificación del Reglamento en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia**

JESÚS LOZA AGUIRRE, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

CERTIFICO

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 30 de junio de 2011, ha aprobado la modificación del Reglamento de la Cámara, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2011.

El secretario primero de la Mesa, Jesús Loza Aguirre. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga Cia



ZIURTAGIRIAREN ERANSKINA

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ERREGELAMENDUA**I. TITULUA
EUSKO LEGEBILTZARRAREN ANTOLAKETA****1. artikulua**

1. Autonomia Erkidegoko herritarren nahiaren ordezkari-tza-organoa da Eusko Legebiltzarra. Legegintza-ahala baliatzea, Aurrekontuak onestea eta Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzea dira Legebiltzarraren eginkizunak.
2. Interpretatzeko eta aplikatzeko orduan, aurretik aipatutako eginkizunak ondoen beteko dituen modura egokituko da Erregelamendua.

2. artikulua

1. Euskara eta gaztelania dira Eusko Legebiltzarreko hizkuntza ofizialak.
2. Eusko Legebiltzarrak bi hizkuntza ofizialen erabilerara normalizatua bermatuko du.
3. Legebiltzarkideek, Eusko Legebiltzarreko langileek, eta oro har herritarrek ere, bi hizkuntza ofizialak berdinduz erabiltzeko eskubidea dute, nola Eusko Legebiltzarreko beren harremanetan hala beren eginkizunak bete-tzean.
4. Eusko Legebiltzarreko argitalpen ofizialak elebidunak izango dira.
5. Eusko Legebiltzarrak beharrezko diren neurriak eta baliabideak jarri eta arautuko ditu bi hizkuntzak jakitea eta erabiltzea bermatzeko.

**I. KAPITULUA
ERATZE BILKURA****3. artikulua**

1. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak egin eta behin emaitzak aldarrikatu ondoren, legebiltzarkide hautetsiek beren izaera egiaztatuko dute, dagokion hauteskunde-batzordeak emandako agiria Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusian aurkeztuta.
2. Ekitaldi berean, beren ondasunen eta jardueren adierazpena aurkeztuko dute legebiltzarkideek, behar bezala beteta.
3. Legebiltzarkide-izaera egiaztatzen duen behin-behineko txartela emango du legelari nagusiak.

ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

REGLAMENTO DEL PARLAMENTO VASCO**TÍTULO I
DE LA ORGANIZACIÓN DEL PARLAMENTO VASCO****Artículo 1**

1. El Parlamento Vasco es el órgano de representación de la voluntad popular de los ciudadanos y ciudadanas de la Comunidad Autónoma, ejerce la potestad legislativa, aprueba los Presupuestos e impulsa y controla la acción del Gobierno.
2. La interpretación y aplicación del Reglamento se adaptará a la forma que mejor desarrolle el ejercicio de las funciones anteriores.

Artículo 2

1. El euskera y el castellano son los idiomas oficiales del Parlamento Vasco.
2. El Parlamento Vasco garantizará el uso normalizado de ambos idiomas oficiales.
3. Los parlamentarios y parlamentarias, los trabajadores y trabajadoras de la Cámara, así como la ciudadanía en general, tienen derecho a hacer uso indistinto de ambos idiomas oficiales tanto en sus relaciones con el Parlamento Vasco como en el desarrollo de sus funciones.
4. Las publicaciones oficiales del Parlamento Vasco serán bilingües.
5. El Parlamento Vasco arbitrará y regulará las medidas y medios necesarios para garantizar el conocimiento y uso de ambos idiomas.

**CAPÍTULO I
DE LA SESIÓN CONSTITUTIVA****Artículo 3**

1. Celebradas las elecciones al Parlamento Vasco y una vez proclamados sus resultados, las parlamentarias y parlamentarios electos acreditarán su condición mediante la entrega en la Secretaría General del Parlamento de la credencial expedida por la correspondiente junta electoral.
2. En el mismo acto, las parlamentarias y parlamentarios entregarán su declaración de bienes y actividades debidamente cumplimentada.
3. El letrado o letrada mayor expedirá una tarjeta provisional que acredite la condición de parlamentario o parlamentaria.



4. artikulua

1. Behin Legebiltzarra osatzen duten kideen heren batek legebiltzarkide-izaera egiaztatu ondoren, eratzte-bilkura egiteko deialdiaren erabakia emango du Diputazio Iraunkorreko lehendakariak. Legebiltzarkideen herenaren egiaztatzea burutu eta hurrengo 15 egunen barruan egingo da eratzte-bilkura.
2. Legebiltzarkideren batek Kongresuko diputatu akta eta euskal legebiltzarkide akta batera edukitzen baditu, ezin izango du inola ere parte hartu eratzte-bilkuran. Halakorik gertatzen bada, aipatu egoeran dagoen legebiltzarkideak bilkura egin aurretik egiaztatu beharko du diputatu-izaerari uko egin diola.
3. Legebiltzarkideek bilkura egingo dute, Diputazio Iraunkorreko lehendakaria buru dela, deialdian zehaztutako egunean eta orduan.
4. Diputazio Iraunkorreko idazkarietako batek egiaztatze-hurrenkeraren arabera dei egingo die legebiltzarkideei, eta zein bere eserlekuan jarriko da. Ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera eman zaiola adieraziko du.
5. Esandako "dei" hori egiten zaienean, bilkuran dauden legebiltzarkideek bertan direla adieraziko dute, banan-banan adierazi ere, eta, lehendakariaren eskariz, dagokien lekuan eseriko dira, Erregelamendu honetan agintzen denaren arabera eskatzen zaizkien egitekoak beteko dituztela baiestearen adierazgarri, bai eta Erregelamendu honetan aitortzen zaizkien eskubideen adierazgarri ere, 9. artikuluan ezartzen dena alde batera utzi gabe.
6. Gero, Diputazio Iraunkorreko idazkarietako batek honako hauek irakurriko ditu: Legebiltzarrari deialdia egiteko erabakia, aretoan dauden legebiltzarkideen zerrenda, egiaztatzea egindako legebiltzarkideen aurka errekurtsioa aurkeztu eta ebatzi gabe daudenak, eta Erregelamenduan ekitaldiari buruz diren artikulua.
7. Diputazio Iraunkorreko lehendakariak dei egingo dio aretoan dauden legebiltzarkideetatik zaharrenari, Adineko Mahaiaren buru izateko. Legebiltzarkide horrek dei egingo die, aretoan daudenetatik, bere ondoren zaharrenak diren bi legebiltzarkideei eta bi gazteenei, Adineko Mahaiko lehendakariordeak eta idazkariak izan daitezen. Adineko Mahaiak behin betiko Mahaia hautatu arte jardungo du Legebiltzarreko Mahaiari dagozkion eginkizun eta egiteko guztietan, luzamendurik onartzen ez duten gaiak sortzen direnean.

Artículo 4

1. Una vez haya acreditado su condición un número de parlamentarios y parlamentarias equivalente a un tercio de los miembros de la Cámara, la presidencia de la Diputación Permanente dictará el acuerdo de convocatoria para la celebración de la sesión constitutiva, que tendrá lugar en el plazo de los 15 días siguientes a la fecha de producirse dicha acreditación.
2. En ningún caso podrá participar en la sesión constitutiva quien acumule las actas de parlamentaria o parlamentario vasco electo y miembro del Congreso de los Diputados. Si se diera tal supuesto, la afectada o afectado deberá acreditar su renuncia a la condición de diputada o diputado antes del inicio de la sesión.
3. Los parlamentarios y parlamentarias se reunirán en sesión presidida por la presidencia de la Diputación Permanente en el día y hora que señale la convocatoria.
4. Uno de los secretarios o secretarias de la Diputación Permanente irá llamando a los parlamentarios y parlamentarias por orden de acreditación, quienes procederán a tomar asiento en sus respectivos escaños. A continuación, la presidencia declarará abierta la sesión.
5. Al "llamamiento" anterior los parlamentarios y parlamentarias presentes exteriorizarán individualmente su presencia en el acto y, a requerimiento de la presidencia, tomarán asiento en su respectivo escaño, en señal de asentimiento al cumplimiento de las obligaciones que les serán exigidas en virtud de lo dispuesto en el presente Reglamento, así como del reconocimiento de los derechos que en el mismo se establecen, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 9.
6. Seguidamente, uno de los secretarios o secretarias de la Diputación Permanente leerá el acuerdo de convocatoria del Parlamento, la lista de los parlamentarios y parlamentarias presentes, los posibles recursos presentados contra las parlamentarias y parlamentarios acreditados que se encuentren pendientes de resolución y los artículos del Reglamento relativos al acto.
7. La presidencia de la Diputación Permanente llamará al parlamentario o parlamentaria de más edad de entre los y las presentes, que ocupará la presidencia de la Mesa de Edad. Esta presidencia a su vez llamará, de entre los y las presentes, a los dos parlamentarios o parlamentarias que le sigan en edad y a los dos parlamentarios o parlamentarias más jóvenes para que, en calidad de vicepresidentes o vicepresidentas y secretarios o secretarias, pasen a integrar la Mesa de Edad que actuará, hasta la elección de la Mesa definitiva, desempeñando

8. Adineko Mahaiko lehendakariak eten egingo du bilkura 15 minutuz, legebiltzarkideek hautagaiak aurkez ditzaten Legebiltzarreko Mahaia osatzen duten karguetarako.
9. Bilkurari berriro ekinda, hautagaien aldarrikapena egingo du Adineko Mahaiko lehendakariak, zein legebiltzarkidek aurkeztu dituzten ere adieraziz.
10. Jarraian, Legebiltzarreko Mahaia hautatuko da, Erregelamendu honetan aurreikusitako prozedurari lotuz.

5. artikulua

1. Bozketak eginda, hautatutakoek beren tokiak hartuko dituzte. Legebiltzarra eratuta geratu dela aldarrikatuko du lehendakari hautetsiak, hurrengo osoko bilkurarako deialdia jakinaraziko du eta bilkurari amaiera emango dio.
- Legebiltzarraren eratzearen berri jarduneko lehendakariari emango dio Legebiltzarreko lehendakariak.

II. KAPITULUA INBESTIDURAKO OSOKO BILKURAREN ALDEZ AURREKO JARDUNAK

6. artikulua

1. Eratze-bilkura eginda, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendako puntu bakarra Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeko kideak izendatzea izango da.
2. Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordea osatzeko bina kide proposatuko dituzte legebiltzar-taldeek. Proposamenak idatziz bidaliko zaizkio Mahaiari osoko bilkura hasi baino lehen.
3. Bidalitako proposamenak irakurriko ditu lehendakariak eta Osoko Bilkurak, berriz, Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeko kideak izendatuko ditu.

7. artikulua

1. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria edukiko ditu Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeak. Kargu horiek, hurrenez hurren, legegintzaldiaren hasieran kide gehien dituzten hiru legebiltzar-taldeen ordezkariak izango dira.

todas aquellas funciones y atribuciones previstas para la Mesa del Parlamento, cuando se planteen asuntos que no admitan aplazamiento.

8. La presidencia de la Mesa de Edad suspenderá la sesión durante 15 minutos a efectos de que los parlamentarios y parlamentarias presenten candidatos o candidatas para los distintos cargos que integran la Mesa de la Cámara.
9. Reanudada la sesión, la presidencia de la Mesa de Edad proclamará los candidatos o candidatas con indicación de los parlamentarios y parlamentarias que los hubieran presentado.
10. Seguidamente se procederá a la elección de la Mesa de la Cámara, de acuerdo con el procedimiento previsto en este Reglamento.

Artículo 5

1. Concluidas las votaciones, los elegidos y elegidas ocuparán sus puestos. La presidenta o presidente electo declarará constituida la Cámara, anunciará la convocatoria del próximo pleno y levantará la sesión.
2. La constitución de la Cámara será comunicada por su presidenta o presidente a la lehendakari o el lehendakari en funciones.

CAPÍTULO II DE LAS ACTUACIONES PREVIAS AL PLENO DE INVESTIDURA

Artículo 6

1. Celebrada la sesión constitutiva, el siguiente pleno tendrá como único punto del orden del día la designación de los miembros de la Comisión Provisional de Incompatibilidades.
2. Cada grupo parlamentario propondrá dos miembros para integrar la Comisión Provisional de Incompatibilidades. Las propuestas se remitirán mediante escrito dirigido a la Mesa antes del inicio de la sesión plenaria.
3. La presidencia dará lectura a las propuestas remitidas y el Pleno procederá a la designación de los miembros de la Comisión Provisional de Incompatibilidades.

Artículo 7

1. La Comisión Provisional de Incompatibilidades tendrá un presidente o presidenta, un vicepresidente o vicepresidenta y un secretario o secretaria que corresponderán, por su orden, a los representantes de los tres grupos parlamentarios de mayor importancia numérica al comienzo de la legislatura.



2. Bateriaezintasunen Behin Behineko Batzordeak dagokion irizpena aurkeztuko dio Osoko Bilkurari, gehienez ere 20 eguneko epean, eta boto haztatuz hartuko ditu erabakiak.

8. artikulua

1. Lehendakariak osoko bilkurarako deia egingo du, irizpenari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena egiteko.
2. Bilkurari amaiera eman baino lehen, lehendakariak inbestidurako osoko bilkurarako eguna eta ordua jakinaraziko ditu.

III. KAPITULUA LEGEBILTZARKIDEAREN ESTATUTUA

1. ATALA LEGEBILTZARKIDE IZATERA IRISTEA

9. artikulua

1. Hautetsia izan dela aldarrikatutako legebiltzarkideak beharkizun hauek guztiak bete beharko ditu legebiltzarkide oso izateko:
 - a) Dagokion hauteskunde-batzordeak emandako hautetsi-agiria Eusko Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusian aurkeztea.
 - b) Jardueren eta ondasunen adierazpenak betetzea, Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeei buruzko Legean ezarritako moduan.
 - c) Legebiltzarra eratzeko osoko bilkurara joatea edo a) eta b) idatz-zatietan adierazitako beharkizunak bete ondoren egingo den lehen osoko bilkurara.
2. Aurreko paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, hautetsia izan dela aldarrikatu den unetik, legebiltzarkideak dagozkion diru kopuruak jasotzeko eskubidea izango du. Baldin eta hauteskundeei auzi-prozesuen ondorioz aldarrikatze-data hori lurralde historiko batetik bestera desberdina bada, legebiltzarkideen eskubide ekonomikoak hauteskundeak egiten diren egunetik hurbileneko datan sortuko dira.
3. Egun baliogabeak egoteagatik edota egutegiko arazoia direla medio, Legebiltzarreko Erregistroan hautetsi-agiria aurkeztu eta hurrengo 15 egun naturaletan osoko bilkurarik egitea aurreikusten ez bada, legebiltzarkide hautetsia Eusko Legebiltzarren Mahaiaren aurrean iritsi ahal izango da legebiltzarkide oso izatera.

2. La Comisión Provisional de Incompatibilidades, en el plazo máximo de 20 días, elevará al Pleno el dictamen correspondiente, tomando sus decisiones por el sistema de voto ponderado.

Artículo 8

1. La presidencia convocará sesión plenaria para el debate y resolución definitiva del dictamen.
2. Antes de levantar la sesión, la presidencia anunciará la fecha y hora del pleno de investidura.

CAPÍTULO III DEL ESTATUTO DE LA PARLAMENTARIA Y EL PARLAMENTARIO

SECCIÓN 1.ª DEL ACCESO A LA CONDICIÓN DE PARLAMENTARIA O PARLAMENTARIO

Artículo 9

1. La parlamentaria o parlamentario proclamado electo adquirirá la plena condición de tal por el cumplimiento conjunto de los siguientes requisitos:
 - a) La presentación, en la Secretaría General del Parlamento Vasco, de la credencial expedida por la correspondiente junta electoral.
 - b) La cumplimentación de las declaraciones de actividades y bienes, en los términos previstos en la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco.
 - c) Acudir a la sesión plenaria constitutiva o a la inmediatamente posterior a la cumplimentación de los requisitos previstos en los apartados a) y b).
2. Lo anterior se entiende sin perjuicio del derecho a la percepción de las asignaciones económicas desde la proclamación como electa o electo. En el caso de que, como consecuencia de procesos contencioso-electorales dicha fecha de proclamación fuera diferente en cada territorio histórico, los derechos económicos de los parlamentarios y parlamentarias surgirán en la fecha más cercana a la de celebración de los comicios.
3. En el supuesto de que, por ser periodo inhábil o por razones de calendario, no estuviera previsto celebrar sesión plenaria dentro de los 15 días naturales siguientes a la presentación de la credencial en el Registro de la Cámara, la parlamentaria o parlamentario electo adquirirá la plena condición de tal ante la Mesa del Parlamento Vasco.

2. ATALA**LEGEBILTZARKIDEEN ESKUBIDEAK ETA ABANTAILAK****10. artikulua**

1. Legebiltzarkideek eskubidea izango dute Legebiltzarraren osoko bilkuretara eta, kide izanik, batzordeen bilkuretara joateko. Kide ez izanik ere, joan ahal izango dira batzorde iraunkorren bilkuretara, baina ezin izango dute botorik eman.
2. Legebiltzarkideek eskubidea izango dute gutxienez batzorde iraunkor bateko kide izateko eta Erregelamendu honek ematen dizkien ahalmenak baliatzeko eta eginkizunak betetzeko.

11. artikulua

1. Legebiltzarkideek, beren eginkizunak modurik eraginkorrean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkiete Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta enpresa publikoei. Eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da.
2. Eskaera, betiere, lehendakariaren bidez zuzenduko zaio dagokion administrazioari. Administrazioak 20 eguneko epea izango du, gehienez, eskaera betetzeko edo, bete ezin badu, epe berean, horretarako dituen arazoak idazki batean azaltzeko.
3. Eskatutako dokumentazioaren izaeratik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki irizitako oharra hartu ahal izango ditu, eta orobat dokumentuen kopiak eskuratu ere.

Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean, aztergaian adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar-taldearen aholkulari direla.

4. Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen

SECCIÓN 2.ª**DE LOS DERECHOS Y PRERROGATIVAS DE LAS PARLAMENTARIAS Y LOS PARLAMENTARIOS****Artículo 10**

1. Las parlamentarias y los parlamentarios tendrán el derecho de asistir a las sesiones del Pleno del Parlamento y a las de las comisiones de que formen parte. Podrán asistir, sin voto, a las sesiones de las comisiones permanentes de que no formen parte.
2. Las parlamentarias y los parlamentarios tendrán derecho a formar parte, al menos, de una comisión permanente y a ejercer las facultades y desempeñar las funciones que este Reglamento les atribuye.

Artículo 11

1. Para el más efectivo cumplimiento de sus funciones, las parlamentarias y parlamentarios podrán recabar de las administraciones públicas, instituciones, organismos públicos y empresas públicas de la Comunidad Autónoma los datos, informes y documentación que obren en poder de estos, expresando en su solicitud el conocimiento de la misma por su grupo respectivo.
2. La solicitud se dirigirá, en todo caso por conducto de la presidencia, a la administración requerida, la cual deberá cumplimentarla en un plazo no superior a 20 días o manifestar en el mismo plazo, y mediante escrito motivado, las razones que se lo impidan.
3. Si por la índole de la documentación solicitada o por la normativa vigente no se pudiera facilitar copia de aquella, la Administración podrá sustituir su envío por el acceso de la parlamentaria o parlamentario a las dependencias administrativas. En tal caso, la parlamentaria o parlamentario podrá tomar las notas y obtener las copias de los documentos que estime oportunas.

Cuando la complejidad técnica de los documentos sobre los que verse la solicitud así lo haga necesario, la parlamentaria o parlamentario podrá acompañarse de especialistas en la materia de que se trate, siempre y cuando sean acreditados ante la Cámara como asesoras o asesores del grupo parlamentario en el que la parlamentaria o parlamentario estuviera integrado.

4. Una vez transcurrido el plazo señalado en el apartado 2, si la Administración se negara expresa o tácitamente a proporcionar la documentación o información solicitadas, o lo efectuase de forma parcial o limitativa, la parla-



baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarki-deak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua hone-tan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat dato-rra adieraziko dio legebiltzarkideari, horretar-ako dituen arazoak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman beharko dio hurrengo osoko bilkuran.

5. Era berean, Euskal Herriari era batera edo bes-tera eragiten diola uste duten informazio oro eskatu ahal izango diete legebiltzarkideek Esta-tuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoe-tako gobernu-organoei, bai eta Europar Bata-suneko instituzioei ere. Eskaera Legebiltzarreko lehendakariaren bidez eta legetan aurreikusita-koari jarraituz egingo da.
6. Legebiltzarkideek orobat, beren egitekoak bete ditzaten, beharrezko informazio eta dokumenta-zioa jasotzeko eskubidea dute, zuzenean Lege-biltzarretik edo beren legebiltzar-taldearen bitar-tez. Eskatutakoa emateko betebeharra dute kasuan kasuko zerbitzuek.

12. artikulua

1. Legebiltzarkideek diru kopuru bat jasoko dute, beren eginkizuna eraginkortasunez eta duinta-sunez bete ahal izateko.
2. Eskubidea izango dute orobat beren eginkizuna betetzeko ezinbestekoak diren laguntzak, franki-ziak eta gastuen ordainak jasotzeko, bai eta legegintzaldiaren amaierakoak ere.
3. Legebiltzarkideek jasotzen dituzten ordainsari guztiak izaera orokorreko zerga-arauei lotuta egongo dira.

13. artikulua

1. Legebiltzarkideek, legebiltzar-lanetan aritu ahal izateko, Gizarte Segurantzaren kidetzeko edo mutualitate baten bazkide izateko zio zuten lana utzi baldin badute, Legebiltzarraren aurrekon-tuaren gain ordainduko zaizkie kidetze- edo bazkide-sariak.
2. Legebiltzarrak hitzarmenak egin ahal izango ditu Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzai-leekin, aurreko paragrafoan zehaztutakoa bete-tzeko eta lehenagotik Gizarte Segurantzaren alta eman gabe dauden legebiltzarkideak, hala nahi izanez gero, dagokion erregimenean kidetzeko.

mentaria o parlamentario firmante de la iniciati-va podrá instar a la presidenta o presidente de la Cámara a que requiera de la Administración el cumplimiento de lo previsto en el presente artículo. A tal efecto, la presidenta o presidente, de acuerdo con la Mesa y una vez analizados los antecedentes relativos a la petición, podrá comunicar motivadamente a la parlamentaria o parlamentario la conformidad con la decisión del Ejecutivo, o bien requerir al Gobierno la documentación no remitida. En caso de que este mantenga su rechazo, deberá dar cuenta al Parlamento en la siguiente sesión plenaria.

5. Asimismo, las parlamentarias y parlamentarios, a través de la presidencia de la Cámara, po-drán solicitar de la Administración del Estado y de los órganos de gobierno de las comunida-des autónomas, así como de las instituciones de la Unión Europea, la información que conside-ren que afecta, de alguna forma, al País Vasco, en los términos previstos en la legislación.
6. Las parlamentarias y parlamentarios tienen derecho también a recibir del Parlamento, di-rectamente o a través de su grupo parlamen-tario, la información y documentación necesaria para el desarrollo de sus tareas. Los servicios correspondientes tienen el deber de facilitársela.

Artículo 12

1. Las parlamentarias y parlamentarios percibirán una asignación económica que les permita cumplir eficaz y dignamente su función.
2. Tendrán igualmente derecho a las ayudas, fran-quicias e indemnizaciones por gastos que sean indispensables para el cumplimiento de su fun-ción, así como los de transición por fin de legis-latura.
3. Todas las percepciones de las parlamentarias y parlamentarios estarán sujetas a las normas tributarias de carácter general.

Artículo 13

1. Correrá a cargo del presupuesto de la Cámara el abono de las cotizaciones a la Seguridad Social y a las mutualidades de aquellas parla-mentarias y parlamentarios que, como conse-cuencia de su dedicación parlamentaria, dejen de prestar el servicio que motivaba su afiliación o pertenencia a aquellas.
2. El Parlamento podrá realizar con las entidades gestoras de la Seguridad Social los conciertos precisos para cumplir lo dispuesto en el aparta-do anterior y para afiliarse, en el régimen que proceda, a las parlamentarias y parlamentarios que así lo deseen y que con anterioridad no estuvieran dados de alta en la Seguridad So-cial.

3. Legebiltzar-lanetan aritu ahal izateko zerbitzu berezietan dauden funtzionario publikoen kasuan, klase pasiboen ordainkizunetara ere hedatuko da 1. paragrafoan ezarritakoa.

14. artikulua

Legebiltzarkideek, agintaldia bukatuta ere, bortxaezintasuna gozatzeko dute karguan aritzean azaldutako iritziak, izandako jokakerak eta emandako boztoak direla eta.

15. artikulua

Legebiltzarkide hautetsiek immunitatea gozatzeko dute Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 26. artikuluko 6. paragrafoko bigarren lerroan zehaztutako eran.

16. artikulua

Legebiltzarkide bat atxilotu egin dutela edo legebiltzar-lanetan aritzeko oztopo izan lezakeen bestelako epaile- edo gobernu-jarduketa bat izan dela jakindakoan, Legebiltzarraren eta legebiltzarkideen eskubideak eta abantailak babesteko beharrezko iruditzen zaizkion neurri guztiak hartuko ditu Legebiltzarreko lehendakariak.

3. ATALA LEGEBILTZARKIDEEN BETEBEHARRAK

17. artikulua

1. Legebiltzarkideek betebeharra izango dute Legebiltzarraren osoko bilkuretara eta, kide izanez gero, batzordeen bilkuretara joatea.
2. Legebiltzarkide batek aurreko paragrafoan zehaztutako bilkuratze-betebeharra behin eta berriro eta arrazoirik gabe hausten baldin badu, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita, Bozeramaileen Batzordearen iritzia ezagutu eta interesatuari entzun ondoren, legebiltzarkidea ordainsaririk gabe uztea erabakiko du.

18. artikulua

Legebiltzarkideak derrigortuta daude beren portaeran Erregelamenduari jarraitzea eta legebiltzar-ordena, -adetasuna eta -diziplina errespetatzera, eta orobat Erregelamenduak hala aginduta salbuespenez isilean gorde beharrekoak diren jarduketak ezagutzera ez ematera.

19. artikulua

Legebiltzarkideek ezin izango dute beren legebiltzarkide-izaera aipatu edo baliarazi merkataritza-

3. Lo establecido en el apartado 1 se extenderá, en el caso de funcionarias o funcionarios públicos que por su dedicación parlamentaria estén en situación de servicios especiales, a las cuotas de clases pasivas.

Artículo 14

Las parlamentarias y parlamentarios gozarán, aun después de haber cesado en su mandato, de inviolabilidad por las opiniones, actuaciones y votos emitidos en el ejercicio de su cargo.

Artículo 15

Las parlamentarias y parlamentarios electos gozarán de inmunidad en los términos establecidos por el párrafo segundo del apartado 6 del artículo 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Artículo 16

La presidenta o presidente del Parlamento, una vez conocida la detención de una parlamentaria o parlamentario o cualquier otra actuación judicial o gubernativa que pudiera obstaculizar el ejercicio de su función parlamentaria, adoptará de inmediato cuantas medidas estime convenientes en orden a salvaguardar los derechos y prerrogativas de la Cámara y de sus miembros.

SECCIÓN 3.ª DE LOS DEBERES DE LAS PARLAMENTARIAS Y LOS PARLAMENTARIOS

Artículo 17

1. Las parlamentarias y los parlamentarios tendrán el deber de asistir a las sesiones del Pleno del Parlamento y de las comisiones de que formen parte.
2. La presidenta o presidente, de acuerdo con la Mesa, oída la Junta de Portavoces y previa audiencia de la interesada o interesado, acordará la suspensión de las percepciones económicas a aquellos parlamentarios o parlamentarias que de forma continuada e injustificada incumplieran la obligación de asistencia establecida en el apartado anterior.

Artículo 18

Las parlamentarias y los parlamentarios están obligados a adecuar su conducta al Reglamento y a respetar el orden, la cortesía y la disciplina parlamentaria, así como a no divulgar las actuaciones que, según lo dispuesto en aquel, puedan tener excepcionalmente el carácter de secretas.

Artículo 19

Las parlamentarias y los parlamentarios no podrán invocar o hacer uso de su condición de tales



edo lanbide-jardueretan aritzeko, ezta beste batzuei halako jarduerak administrazio publikoen aurrean burutzen laguntzeko.

20. artikulua

1. Legebiltzarkideek, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskuendeei buruzko Legean adierazitako moduan, honako adierazpen hauek egin beharko dituzte:
 - a) Bateriaezintasun-zio izan daitezkeen jardueren adierazpena, eta orobat, bateragarriak izan arren, diru-sarrerak edo ondare-abantailak ematen dizkieten edo eman diezazkieten jardueren adierazpena ere.
 - b) Beren ondare-ondasunen adierazpena.
2. Adierazpen horiek hautetsi-agiria aurkeztu ondoren egin beharko dira. Halaber, aurreko paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako inguruabarretan aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean egin beharko da jardueren adierazpena, aldaketa gertatu eta hilabeteko epean. Ondasunen aldaketei dagozkien adierazpenak, berriz, gehenez ere urtebeteko epean egingo dira. Legebiltzarkide izateari uztean ere egingo da ondasunen adierazpena.
3. Jardueren nahiz ondasunen adierazpenak Legebiltzarreko zerbitzuek egindako eredu ofizialetan egin beharko dira, legelari nagusiaren aurrean gauzatuko dira eta hark, fede emateko, dago-kion egiaztagiria egingo du. Interesen Erregistroa eratuko da Legebiltzarrean, lehendakariaren zuzeneko ardurapean, eta han jasoko dira adierazpenak. Erregistroko datuak publikoak izango dira, ondare-ondasunen adierazpenei dagozkienak izan ezik. Erregistro horretan jasoko dira, orobat, Osoko Bilkurak bateraezintasunei buruz emandako ebazpenak eta Bateriaezintasunen Batzordeak igorri eta lehenagotik jaso gabe dagoen datu oro.

21. artikulua

1. Legebiltzarkideek ordenamendu juridikoan bateraezintasunei buruz ezarritako arauak bete beharko dituzte beti.
2. Bateriaezintasunak aztertzeko, jardueren adierazpenen kopia eta horietan izaniko aldaketen kopia bidaliko dio Interesen Erregistroak Bateriaezintasunen Batzordeari.

para el ejercicio de actividades mercantiles o profesionales, ni para la colaboración en el ejercicio por terceros de dichas actividades ante las administraciones públicas.

Artículo 20

1. Las parlamentarias y parlamentarios están obligados a formular, en los términos previstos en la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, las siguientes declaraciones:
 - a) La declaración de actividades que pueden constituir causa de incompatibilidad, así como de las que, resultando de ejercicio compatible, proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos o ventajas patrimoniales.
 - b) La declaración de sus bienes patrimoniales.
2. Dichas declaraciones deberán efectuarse tras la presentación de la credencial acreditativa de la condición de electo. Asimismo, deberá presentarse declaración de actividades cada vez que se produzca una modificación de circunstancias a que se refiere la letra a) del apartado anterior, en el plazo de un mes desde su acacimiento. Las modificaciones de bienes, por su parte, se declararán en el plazo máximo de un año. Igual declaración de bienes se realizará a la pérdida de la condición de parlamentaria o parlamentario.
3. Las declaraciones sobre actividades y bienes deberán efectuarse en los modelos oficiales elaborados por los servicios de la Cámara, se realizarán ante el letrado o letrada mayor, quien dará fe extendiendo la correspondiente certificación, y se inscribirán en el Registro de Intereses, constituido en la Cámara bajo la dependencia directa del presidente o presidenta del Parlamento. El contenido del Registro tendrá carácter público, a excepción de lo relativo a las declaraciones de bienes patrimoniales. También se inscribirán en este Registro las resoluciones del Pleno en materia de incompatibilidades y cuantos otros datos sean remitidos por la Comisión de Incompatibilidades y no consten previamente en el mismo.

Artículo 21

1. Las parlamentarias y parlamentarios deberán observar en todo momento las normas sobre incompatibilidades establecidas por el ordenamiento jurídico.
2. A efectos del examen de incompatibilidades, desde el Registro de Intereses se remitirá a la Comisión de Incompatibilidades copia de las declaraciones de actividades y de sus modificaciones.



3. Bateriaezintasunen Batzordeak legebiltzarkide bakoitzaren bateragarritasun- edo bateraezintasun-egoerari buruzko proposamenak aurkeztuko dizkio Osoko Bilkurari 20 eguneko epearen barruan, legebiltzarkide batek legebiltzarkide-izaera erabat eskuratzen duenetik edo, bateraezintasunak direla eta, aurreko artikuluan aipatutako jardueretan izandako edozein aldaketa nahitaez jakinarazten duenetik kontatzen hasita.
4. Bateriaezintasuna erabaki eta jakinarazi ondoren, legebiltzarkideak zortzi egun naturaleko epea izango du eserlekua ala bateraezina den kargua aukeratzeko, eta epe horretan ezin izango du Legebiltzarreko lanetan eta bilkuretan parte hartu. Jarritako epean aukerarik egiten ez badu, eserlekuari uko egiten diola adituko da.

4. ATALA

LEGEBILTZARKIDE IZAERA KENTZEA ETA GALTZEA

22. artikulua

Zio hauek direla-eta kenduko zaizkio legebiltzarkideari legebiltzar-eskubideak eta -betebeharrak:

- 1) Erregelamendu honetan zehaztutako legebiltzardiziplinako arauak aplikatzea.
- 2) Auzipetze-ebazpena irmoa delarik, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, hala erabakitzea, egotzitako egintzen izaera aintzat hartuta.
- 3) Kondena-epai irmo batek halako izaera kentzea berekin ekartzeko edo kondena-epaia betetzeak legebiltzar-lanetan aritzea ezinezko bihurtzea.

23. artikulua

Zio hauek direla-eta galduko du legebiltzarkideak legebiltzarkide-izaera:

- 1) Epailearen erabaki irmo batek deuseztatzea legebiltzarkidearen hautaketa edo aldarrikapena.
- 2) Legebiltzarkidea hiltzea edo ezinduta geratzea; epailearen erabaki irmoz adierazi beharko da ezintasuna.
- 3) Agintaldia amaitzea, legegintzaldia bukatzearen edo Legebiltzarra desagitearen ondorioz. Diputazio Iraunkorreko kideek Legebiltzar berria eratu arte jarraitu ahalko dute beren eginkizunak betetzen.

3. La Comisión de Incompatibilidades elevará al Pleno sus propuestas sobre la situación de compatibilidad o incompatibilidad de cada parlamentaria o parlamentario en el plazo de los 20 días siguientes a la plena asunción por la parlamentaria o parlamentario de su condición de tal o a la comunicación que obligatoriamente habrá de realizar sobre cualquier alteración de las actividades señaladas en el artículo anterior a efectos de incompatibilidades.
4. Declarada y notificada la incompatibilidad, la parlamentaria o parlamentario incurso en ella dispondrá de un plazo de ocho días naturales para optar entre el escaño y el cargo incompatible, durante el cual no podrá participar en las tareas y reuniones de la Cámara. Si no ejercitara la opción en el plazo señalado se entenderá que renuncia a su escaño.

SECCIÓN 4.ª

DE LA SUSPENSIÓN Y PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE PARLAMENTARIA O PARLAMENTARIO

Artículo 22

La parlamentaria o parlamentario quedará suspendido en sus derechos y deberes parlamentarios:

- 1.ª Por aplicación de las normas de disciplina parlamentaria establecidas en el presente Reglamento.
- 2.ª Cuando, firme el auto sobre su procesamiento, el Pleno de la Cámara así lo acuerde, por mayoría absoluta, atendida la naturaleza de los hechos imputados.
- 3.ª Cuando una sentencia firme condenatoria lo comporte o cuando su cumplimiento implique la imposibilidad de ejercer la función parlamentaria.

Artículo 23

La parlamentaria o parlamentario perderá su condición de tal por una de las siguientes causas:

- 1.ª Por decisión judicial firme que anule la elección o la proclamación de la parlamentaria o parlamentario.
- 2.ª Por fallecimiento o incapacitación de la parlamentaria o parlamentario, declarada esta por decisión judicial firme.
- 3.ª Por extinción de su mandato al expirar la legislatura o disolverse la Cámara, sin perjuicio de la prórroga en sus funciones de los miembros de la Diputación Permanente hasta la constitución de la nueva Cámara.



- | | | | |
|----|--|-----|--|
| 4) | Legebiltzarkideak uko egitea. Ukoa berak egingo du Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean agertuta. Uko egitea idatziz onartzeko, argi eta garbi geratu beharko du idazkia ezin duela legebiltzarkideak berak aurkeztu eta modu sinetsgarrian frogatuko da egiazkoak direla idazkiaren data eta sinadura. | 4.º | Por renuncia de la parlamentaria o parlamentario, hecha personalmente ante la Mesa del Parlamento. Solo se admitirá la renuncia por escrito cuando resulte indubitada la imposibilidad de la parlamentaria o parlamentario para presentarla personalmente y hubiera prueba fehaciente de la veracidad de su fecha y firma. |
| 5) | Kondena-epai irmo batek zigor modura ezartzea. | 5.º | Por sentencia firme condenatoria que la imponga como pena. |
| 6) | Euskal herritarraren izaera politikoa galtzea. | 6.º | Por pérdida de la condición política de vasca o vasco. |

IV. KAPITULUA LEGEBILTZAR TALDEAK

24. artikulua

1. Legebiltzarkideek legebiltzar-taldeak eratu ahal izango dituzte. Talde bakoitzak gutxienez hiru kide izan beharko ditu.
2. Alderdi politiko, alderdi-federazio edo hautesle-talde beraren izenean, hauteskundeetara aurkeztu diren legebiltzarkideek ezin izango dute talde bereizirik eratu ez eta taldeetan zatitu ere. Alderdi-koalizio batean aurkeztu diren legebiltzarkideek koalizioa osatzen duten alderdi beste legebiltzar-talde eratu eta taldetan zatitu ahal izango dute, betiere aurreko paragrafoan ezarritako baldintza betetzen bada.
3. Legebiltzarkide bakoitza ezin izango da legebiltzar-talde bat baino gehiagoko kide izan.
4. Legebiltzarra eratzeko bilkura egin eta hurrengo bost egunen barruan eratu beharko dute legebiltzar-taldeak. Idazki bat aurkeztuko zaio Legebiltzarreko Mahaiari, taldeko kide izan nahi duten guztiek izenpetuta. Idazkian taldearen izena, taldeko kide guztien izenak, taldeko bozeramailearen eta haren ordezeko baten edo gehiagoren izenak jarriko dira, baita Legebiltzarkidearen Estatutuaren Batzordeko kide izateko izendatutakoaren izena ere.

25. artikulua

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoari jarraiki eta aipatu epeetan legebiltzar-talde batean sartu gabe geratzen diren legebiltzarkideak Talde Mistoan sartuko dira.

Talde Mistoak gainerako taldeek bezalaxe hartuko du parte Legebiltzarreko jardunean.

CAPÍTULO IV DE LOS GRUPOS PARLAMENTARIOS

Artículo 24

1. Las parlamentarias y parlamentarios, en número no inferior a tres, podrán constituirse en grupo parlamentario.
2. No podrán constituirse ni fraccionarse en grupos parlamentarios diversos quienes en las elecciones hubieran comparecido ante el electorado bajo un mismo partido político, federación o bajo una misma agrupación de electores. Quienes hubiesen concurrido en coalición de partidos podrán constituirse o fraccionarse en tantos grupos parlamentarios como partidos políticos conformen la coalición, siempre que se cumpla el requisito establecido en el apartado anterior.
3. Ninguna parlamentaria o parlamentario podrá formar parte de más de un grupo parlamentario.
4. La constitución de los grupos parlamentarios deberá realizarse dentro de los cinco días siguientes a la sesión constitutiva del Parlamento, mediante escrito dirigido a la Mesa de la Cámara. En este escrito, que irá firmado por todas y todos los que deseen constituir el grupo, deberá constar la denominación de este y los nombres de todos sus miembros, de su portavoz y de una o más sustitutas o sustitutos, así como el miembro designado para formar parte de la Comisión del Estatuto Parlamentario.

Artículo 25

1. Las parlamentarias o parlamentarios que conforme a lo establecido en los artículos precedentes no quedaran integrados en un grupo parlamentario en los plazos señalados quedarán incorporados al Grupo Mixto.

La participación del Grupo Mixto en las actividades del Parlamento será idéntica a la de los restantes grupos.



- | | |
|--|---|
| <p>2. Talde Mistoak kideen artean lortzen diren barne-akordioak izango ditu jarraibide. Akordioak lortzea ezinezkoa denean edo lortutako akordioak hausten direnean, Talde Mistoak, kide batek eskatuz gero, antolatzeko eta jarduteko barne-erregelamendu bat prestatzeari ekingo dio, taldeko kideen gehiengo osoak onetsi dezan.</p> <p>Barne-erregelamenduak, eta halaber Talde Mistoko kideen kopurua eta osaera aldatuz gero erregelamendu horretan egin beharko diren aldaketek edo egokitzapenek ere, talde barruko aniztasuna adierazi ahal izatea bermatuko dute. Legebiltzarreko Mahaiak begirale-lana beteko du horretarako, ez beste ezertarako, eta erregelamendua eta aldatze-egokitzeak Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du. Erregelamendua onartzeko beharrezkoa den gehiengoa lortzen ez baldin bada, taldea eratu eta sei hilabeteko epean, Legebiltzarreko Mahaiak hartuko ditu taldearen jardura-arauari buruzko behin betiko erabakiak legegintzaldi osorako.</p> | <p>2. El Grupo Mixto se registrá por los acuerdos a que internamente lleguen sus miembros. Ante la imposibilidad de alcanzarlos o cuando sobreviniera la ruptura de los acuerdos, el Grupo Mixto, a instancia de cualquiera de sus miembros, procederá a elaborar y aprobar por mayoría absoluta de sus integrantes un reglamento interno de organización y funcionamiento.</p> <p>Dicho reglamento, así como las eventuales modificaciones o adaptaciones del mismo que como consecuencia de las variaciones del número y composición de miembros del Grupo Mixto hayan de adoptarse, garantizará la expresión de la pluralidad interna del grupo bajo la supervisión, a estos únicos efectos, de la Mesa de la Cámara, que ordenará su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco. En caso de no alcanzarse la mayoría exigida para la aprobación del citado reglamento en el plazo de seis meses desde la constitución del grupo, la Mesa de la Cámara resolverá definitivamente sobre las reglas de funcionamiento de este grupo durante toda la legislatura.</p> |
| <p>3. Eztabaidetan esku hartzean, Talde Mistoko kideek, denen artean, legebiltzar-talde bati dagokion denbora bera izango dute, alde batera utzita esku-hartzeak txanda berean edo txanda desberdinetan egiten diren.</p> | <p>3. Las intervenciones en los debates de los componentes del Grupo Mixto tendrán, en su conjunto, la misma duración que la de un grupo parlamentario, independientemente de que las intervenciones se produzcan en el mismo turno o en turnos diferentes.</p> |
| <p>4. Osoko bilkuretan eta batzordeetan, Talde Mistoko kideen esku-hartze denbora berdintasunez banatuko da esku-hartzea eskatu dutenen artean.</p> | <p>4. En las sesiones plenarias y en las comisiones, el tiempo de intervención de los miembros del Grupo Mixto se distribuirá por igual entre quienes hayan solicitado intervenir.</p> |
| <p>5. Ahal den neurrian, berdintasunezko irizpidea jarraituko da Talde Mistoaren batzordeetako eserlekuak banatzeko orduan. Horretarako, taldeak proposamena aurkeztu ahal izango dio Mahaiari, kide bakoitzak eta guztiek sinatuta, adostasun-adierazgarri. Proposamenik ez baldin badago, Legebiltzarreko Mahaiak erabakiko du banaketa, taldeko kideen iritzia entzun eta gero.</p> | <p>5. Los escaños correspondientes al Grupo Mixto en las comisiones se distribuirán, en lo posible, con un criterio igualitario entre todos sus miembros. A tal efecto, el grupo podrá presentar la correspondiente propuesta a la Mesa con la firma de conformidad de todos y cada uno de sus miembros. A falta de propuestas, la Mesa de la Cámara decidirá la distribución previa audiencia de los miembros del grupo.</p> |
| <p>6. Betiere, Talde Mistoa osatzen duen indar politikoko bakoitzak ziurtatua izango du legegintzakoak ez diren lantaldeetan egoteko aukera.</p> | <p>6. En todo caso, cada fuerza política integrante del Grupo Mixto tendrá asegurada su presencia en las ponencias no legislativas.</p> |
| <p>7. Batzordeetako bilkuretan, ordezkatzekak egin ahal izango dituzte beren artean Talde Mistoko legebiltzarkideek, batzordeko Mahaiari idazkia eginda, titularrak eta ordezkoak sinatutako idazkia.</p> | <p>7. En las sesiones de las comisiones, los parlamentarios y parlamentarias del Grupo Mixto podrán sustituirse entre sí mediante escrito dirigido a la Mesa de la comisión, firmado por el titular o la titular y el sustituto o sustituta.</p> |
| <p>8. Talde Mistoko kideek zuzenketak, boto partikularrak, interpelazioak, galderak, mozioak edo bestelako legebiltzar-ekimen oro aurkeztu ahal izango dute beren sinadura hutsez eta beren izenean bakarrik. Horretarako, bozeramaile gaitutzat joko dira Talde Mistoko kide guztiak, nahiz eta titularra bat edo beste izan kasu bakoitzean.</p> | <p>8. Los miembros del Grupo Mixto podrán formular con su sola firma, y a título personal, enmiendas, votos particulares, interpelaciones, preguntas, mociones o cualesquiera otras iniciativas parlamentarias. En tal sentido, todos los miembros del Grupo Mixto tendrán la consideración de portavoces habilitados, sin perjuicio de quien lo sea en cada caso como titular.</p> |



26. artikulua

1. Legebiltzarkide-izaera Legebiltzarraren eratzebilkura egin eta gero lortzen duten legebiltzarkideek bost eguneko epea izango dute legebiltzar-talde batean sartzeko, legebiltzar-izaera lortu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Legebiltzar-talde batean sartu ahal izateko, atxiki nahi duten legebiltzar-taldeko bozeramailearen onespena jaso beharko dute, Legebiltzarreko Mahaiari bidalitako idatzi batean. Bestela Talde Mistoan geldituko dira.
2. Legebiltzarkide batek, dena delakoagatik, legebiltzar-talde jakin batekoa izateari uzten badio, zuzenean Talde Mistoan sartuta geratuko da legegintzaldiaren gainerako denboran. Legebiltzarkideak taldetik alde egiten badu, legebiltzarkideak berak jakinaraziko dio Legebiltzarreko Mahaiari. Kidea legebiltzar-taldeak kentzen duenean taldetik, taldeko bozeramaileak jakinaraziko dio Legebiltzarreko Mahaiari idazki baten bidez. Idazkia bozeramaileak berak eta taldeko kide gehienek sinatuta bidali beharko da.
3. Baldin eta, legebiltzarkide batek bere taldetik alde egiten duelako edo legebiltzar-talde batek bere kide bat taldetik kentzen duelako, legebiltzar-talde bateko kide kopurua hirutik behera jaisten bada, deseginda geratuko da besterik gabe talde hori eta bere kideak Talde Mistoan sartuko dira.

27. artikulua

1. Legebiltzar-taldeetako kideek, beren bozeramaileen oniritziarekin, taldeartekoak edo beste legebiltzarkide talde ez-ofizial batzuk eratu ahal izango dituzte, gai zehatz batzuei buruz dituzten ikuspuntuak informalki trukatzeko eta legebiltzarkideen eta gizartearen arteko harremana sustatzeko.
2. Talde horiek ezin izango dute egin Legebiltzarraren edo haren organoen jarduera ofizialekin nahasteko bidea eman dezakeen jarduerarik.
3. Talde horiek Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren erabaki baten bidez eratuko dira. Aldez aurretik idazki bat helaraziko zaio organo horri, eta hor jaso behako dira taldea osatuko duten legebiltzarkideen izenak, taldearen helburuak eta lanegitismo orientagarri bat, bai eta beren legebiltzar-taldeetako bozeramaileen sinadura ere.
4. Horrela eratutako taldeartekoei edo talde ez-ofizialei Eusko Legebiltzarrak laguntza logistikoa

Artículo 26

1. Las parlamentarias y parlamentarios que adquieran su condición con posterioridad a la sesión constitutiva de la Cámara podrán incorporarse a un grupo parlamentario dentro de los cinco días siguientes a dicha adquisición. Para que la incorporación pueda producirse deberá constar la aprobación del portavoz del grupo parlamentario al que pretenda adherirse, mediante escrito dirigido a la Mesa de la Cámara. En caso contrario quedarán incorporadas o incorporados al Grupo Mixto.
